

Enpresa eta Gestoria agurgarriak:

SEPA deritzon sistema indarrean jarri dela eta, nahi duen enpresa edo gestoria orok, 2009. urtetik kargu automatikoak (zordunketa) egiteko garatua dugun sistema bat eskuragarri duela gogorazi nahi dizuegu. Egun, 8.000 enpresa inguruk erabiltzen dute. Sistema honekin, zuen enpresetako nahiz gure entitateko administrazio prozesuak errazten dira, **eskuz eginiko akatsak ekidiz eta paper kontsumoa murriztuz.**

Kargu sistemaren ezaugarriak:

- Sistema hau **BORONDATEZKOA** da.
- Ordainketa modu hau erabat **DOAKOA** da enpresa eta gestoria guztientzat.
- **Kargua zuek bidalitako ekarpen fitxategiko zenbateko zehatzagatik** egingo da, behin fitxategiko datu guztiak balidatu ondoren.
- **Karguak** dagokion **hilabeteko azken lan egunean** egingo dira.

Baldintzak:

Ordainketak kargu automatiko bidez burutu nahi dituzten **enpresa eta gestoria guztiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:**

- **Fitxategiak, GEROA PENTSIOAK BGAEk garatutako programaren bidez sortzen badituzue**, gure web gunean eskuragarri duzen PROGRAMA BERRIA instalatu beharko duzue (Instalazio jarraibideak irakurri). “Enpresa aukeratu”- “Enpresa” atalean, “karguak kontura” laukia aukeratu eta IBAN-a sartu beharko da (BIC-a aukerakoa da). Prozesu hau, dituzuen enpresa bakoitzeko errepikatu beharko da.
- **Fitxategiak zuen nomina programarekin burutzen badituzue**, GEROA PENTSIOAK BGAEra bidaliko duzen irteera fitxategiaren irteera diseinua egokitu beharko duzue, bertan TOT erregistroko alorrak ager daitezzen. (irteera diseinua gure web-ean ikus dezakezue www.geroa.es : “Geroa programa” – “irteerako fitxategi diseinua”)
 - **Kargua Bai/Ez: Luzera (1)** - Posizioak: Hasera: 68 Bukaera:68 (S edo txuria)
 - **IBAN (Derrigorra): Luzera (34)** - Posizioak: Hasera: 89 Bukaera:122
 - **BIC(Aukerakoa): Luzera (11)** - Posizioak: Hasera: 123 Bukaera:133

OHARRA: CCC alor zaharraren 20 posizioak (69tik 88ra) txuriz beteko dira.

Alor berriak gehitu behar izan direnez, enpresaren e-maila jartzeko atal berri bat ere barneratu da EMP erregistroan

- **Enpresaren emaila (Derrigorra): Luzera (100)** Posizioak: Hasera: 256 Bukaera: 355

Kanpo berri hauek ezkererantz lerrotatuak eta txuriekin eskubira izango dira.



Lugaritz pasealekua 27 - 20.018 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Telefonoa: 943 317022
Faxa: 943 317280
www.geroa.es

- Fitxategiaren aurkezpen epea hurrengo hilabeteko 15. eguna da. Hau da, Maiatzeko fitxategiak GEROA PENTSIOAK BGAEn egon beharko dira 2014ko ekainaren 15erako beranduenez, eta honela hurrenez hurren.
- Enpresek ekarpen fitxategian bidalitako zenbatekoa banku kontuan izan beharko dute, GEROA PENTSIOAK BGAEk inongo eragozpenik gabe kargua egin dezan. Enpresa baten kargua hiru alditan atzera botatzen badigute, kargua egiteari utziko diogu, ondorioz, ordainketa modu tradizionalan burutu beharko litzateke: G-1 bidez, banku transferentzia bitartez...
- Karguen kontua nahi adina alditan alda daiteke. GEROA PENTSIOAK BGAEk fitxategian zehaztutako kontutik burutuko du kargua beti ere.
- IBAN-a osorik agertu behar da.
- GEROA PENTSIOAK BGAEk Gestoria bakoitzak bere enpresa bakoitzari kargu automatikoen prozesuaren berri emango diela ulertzen du; beraz, GEROA PENTSIOAK BGAEra baiezkota eman duten enpresen kontuak soilik bidaliko dira.

SEPA ordainketa sistema indarrean sartzen da:

2014/02n, SEPA indarrean sartu dela eta, CCC zenbakia IBAN kodeagatik ordezkatu beharko duzue aurretik aipatu dugun fitxategiko posizioetan. Mesedez aldaketa hau ahal bezain laister burutu ezazue. **Dena den, zuen sistema prest izan arte, orain arte bezala, kontu korrontekak bidal ditzazkeuzue.**

Besterik gabe, adeitasunez,

GEROA PENTSIOAK BGAE